

Mondragon Unibertsitateak eta Irungo Udalak Bidasoako campusean bukatu dituzten handitzeko obrak bisitatu dituzte.

2011/03/25

Ducoureau jauregia handitzeko lanak bukatu dira jadanik. Irungo Udalak 800.000 euroko inbertsioa egin du. Mondragon Unibertsitatearen Bidasoako campuseko ikasleak Ducoureau jauregiari atxikitako 600 metro koadroko azpiegitura erabiltzeko aukera izango dute. Gaur, eranskina inauguratzeko ekitaldian, Unibertsitateko errektorea, Iosu Zabala, Irungo alkatea, José Antonio Santano, eta EAEko gobernu-ordezkariordea, Pedro Miguel Rio Oyarbide, egon dira instalazio berrietan.

Lanek iraun duten bitartean, E Planaren (Espainiako Gobernuaren Enplegu eta Tokiko Iraunkortasunerako Estatu Fonda) bidez finantziatutako zentroak ekinean jarraitu du, eskolak bertan behera utzi gabe. Era berean, inguruko biztanleei ahalik eta eragozpen gutxien sortzen saiatu dira uneoro.

Bi solairu modular

Eraikuntza-lanetan, ahalik eta ikasgela eta bilera-gela gehien egiteko beharrari erantzun zaio. Horrela, beheko solairuan ikasgelak, bulegoak eta bilera-gelak daude, eta lehen solairuan, berriz, ikasgelak, coach edo entrenatzaileen aretoa, talde-lanetarako aretoa eta training-saioterako aretoa.

Mondragon Unibertsitatearen Enpresa Zientzien Fakultatea duela zazpi urte finkatu zen Irunen, hiri horretako gogoeta estrategikoarekin bat, hezkuntza funtsezko oinarritzat jo baitzen Bidasoa eskualdearen hazkundearentzat. Irungo campusa handitzeko lanen abiapuntua Irungo Udalaren apustua izan da: bere unibertsitate-eskaintza sustatzea, gizarte- eta ekonomia-garapena indartzeko eta etorkizunerako inbertitzeko.

Gaur egun, Mondragon Unibertsitatearen Bidasoako campusean, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzakoa gradua eta Lidergo Ekintzaile eta Berrikuntzako gradua eskaintzen dira. Bigarrena era horretako bakarra da Espainian. Era berean, Surf eta Irristatze Kiroletako Marketing and Management ikastaro aurreratua, Lankidetzako bidezko Berrikuntzako Nazioarteko masterra eta MBA Executive masterra eskaintzen ditu, baita Gipuzkoako Ganberarekin elkarlanean antolatutako MBA masterra ere, Ganberaren instalazioetan.

Ingurunearekin lankidetzan

Mondragon Unibertsitatearen Enpresa Zientzien Fakultatea 2003an hasi zen ekinean Irunen. Izan ere, Irungo eta Hondarribiko Udalen eta Bidasoa Bizirik elkartearen (Eskualde Garapenerako Agentziaren) ekimenari emandako erantzunaren emaitza izan zen fakultate berria. Hizpide dugun proiektuak, enpresa-munduarekiko lotura estuan oinarrituz, gizartea aldatzen eta garatzen laguntzeko konpromiso irmoa eta proaktiboa hartu du. Lehen urratsa urte hartan bertan eman zuen, enpresa laguntzaileen foroa sortuz. Foroko kideak eskualdeko eta inguruko enpresa eta erakundeak ziren, eta, guztien partaidetza arautzeko, aldebiko lankidetzako hitzarmena sinatu zuten. Partaidetza-proiektu horretan, unibertsitate, erakunde, enpresa eta gizarte-eragile guztiak buru-belarri murgildu dira helburuak finkatzeko, estrategiak diseinatzeko eta ezagutzak trukatzeko lanetan, elkarlanean arituz beti.

Enpresekiko lankidetzak hiru oinarri ditu: ikasleak, enpresak eta unibertsitatea. Lehen oinarriari dagokionez, unibertsitatea enpresak aurkitzen saiatzen da, ikasleek praktikak, karrera-amaierako proiektuak... egin ditzaten, eta, ahal izanez gero, lana lor dezaten. Bigarren oinarriaren ardatzak enpresak dira. Enpresentzat garrantzitsua da kudeaketa-gaiei lotutako ezagutzen sortzaileen ondoan egotea,



prestakuntza- zein ikerketa-arazoak edo bestelakoak konpondu ahal izateko. Izan ere, ikerketa hori MIKaren eta enpresetara ikerketa transferitzearen bitartez bideratzen dugu. Hirugarren oinarria, unibertsitatea bera, aipatutako prozesuan bitartekari-lana egiten ahalegintzen da, enpresen errealitatea ikasleengana eramateko eta ikasleei antolakundeetan sarbidea emateko.

Ildo horretan, hain zuzen, unibertsitateak Mugi Hadi proiektua jarri du abian, Bidasoako campuseko ikasle, irakasle eta langileek elkarlanean jardunez gunek berriak sor ditzaten, unibertsitate-bizitza ikasgeletatik kanpo hedatzeko. Mondragon Unibertsitatea Bidasoako gizartean barneratzea da helburua, ikasleek, unibertsitate-bizitzan ez ezik, eskualdeko kultura-, kirol- eta aisia-jardueretan ere parte har dezaten.

